

EUSKARA ETA KARTZELA

IZASKUN BARBARIAS GARAIZAR
IKASLE PRESOEN IRAKASLE TALDEKO KIDEA



EUSKARA IRAKASLEON IBILBIDEA

2018an 9 presok eman zuten EGA prestatzeko izena

- ▶ Ibon, Jon, Oier, Josune, Orkatz, Agus, Sebas, Gorka eta Joseba izan ziren gure lehenengo ikasleak.
- ▶ 2018an ibilbideari ekin genion eta 2019an EGA azterketa egin zuten.
- ▶ *Irakaskuntza-prozesuari dagokionean, kartzela bakoitza mundu bat, eta, mundu desberdin horietako bakoitzean, beste hainbat mundu. Baina guztietan gure lana **OZTOPATZEKO** gogoia.*
- ▶ *Emaitzak heldu eta 9tik 8 GAI!*

2019tik 2023ra, 45-50 ikasle deserrian: Castellón, Puerto de Santa María, Salamanca, Córdoba, Zaragoza, Galizia, Lannemezan... eta, beste horrenbeste irakasle boluntario Euskal Herrian, euskararekin kartzela arrakalatu nahian



HABE, LEGEBILTZARRA, ALDERDI POLITIKOAK 2019-2024

HABE:

Urte hauetan hainbat bilera, helburu argia:

- ▶ Ikasleak euskaltegietan matrikulatuta egotea. **MODU OFIZIALEAN IKASTEKO ESKUBIDEA ALDARRIKATZEN GENUEN.**
- ▶ Maila guztiak egiaztatzeko aukera izatea
- ▶ Matrikula doan izatea
- ▶ Ikasleei irakasleak esleitzea tutore moduan
- ▶ Azterketak deialdi itxietan egiteko aukera izatea

Hasieran ezinezkoa zela ikasle presoek azterketa ofizialak egitea adierazi ziguten: aztertzaileak kartzeletara bidaltzea ezinezkoa, IIPPren aurrean justifikatzea ezinezkoa, politikoki justifikatzea ezinezkoa... dena zen ezinezkoa.

- ▶ Ezintasuna nagusi, baina lanean jarraitu genuen.
- ▶ Urte hauetan, azterketak deialdi irekietan egin dituzte.
- ▶ Azterketetara aurkeztutakoen % 95ek mailaren bat egiaztatu du, batzuek bat baino gehiago, B1 mailatik

LEGEBILTZARRA ETA ALDERDI POLITIKOAK

- ▶ Legebiltzarrean agerraldiak
- ▶ Alderdi politikoekin hainbat bilera, harrera ona toki guztietan, baina aurrera pausurik ez



2021-2024 URTEAK

- HABE IIPPeKin Hitzarmen bat adosten hasi zen
- 2021eko irailean Eusko Jaurlaritzak EAEko kartzelak kudeatzeko eskumena lortu zuen
- 2021etik aurrera Justizia Saila ere gure “harreman sarean” kokatu genuen
- **202ko MARTXOAN KARTZELETAN EUSKARA ESKOLAK EMATEN HASI GINEN**
 - Zaballa: 100 matrikula baino gehiago (maila guztiak)
 - Basauri: 15 bat matrikula (maila guztiak)
 - Martutene: 20 bat matrikula (maila guztiak)
- Bertsolariak, abeslaria, ipuin kontalariak, gai desberdinak lantzeko hitzaldiak, idazleak, poetak etab...



Basauriko gure ikasle batek idatzia:
***Ttipi ttapa, ttipi ttapa..
zuek gabe ezingo zen izan,
ezin izango zen,
ezin izengo zengo...
bakoitzak bere moduan,
Denok ZANGO OZEN!***

KARTZELA

Kartzela gizartearen isla dela esaten da, alegia, kalean gizarte-bazterketa edota diskriminazio egoeran dauden taldeak, kartzeletan egoera hori bikoiztu edo hirukoiztu egiten da... Eta, Espainiako Estatuko kartzelei begiratu bat ematea nahikoa da zein gizartetan bizi garen ikusteko.

- ✓ Kartzelan dauden gehienak baliabide gutxiko pertsonak dira, bizitzan aurrera egiteko aukera gutxi eta kulturarekin edota hezkuntza sistemarekin lotura txikia izan dutenak.
- ✓ Kartzelak matxismoan, arrazismoan eta ahulenen aurkako abusuan oinarritutako erregimen baten pean daude.
- ✓ Espetxean hierarkia eta diskriminazio-modu berriak agertzen dira, presoei modu desberdinean eragiten dietenak.
- ✓ Giza esplotazioaren joko hori areagotu egiten da: emakumeen, pertsona transgeneroen, edota beste edozein pertsona desberdinen kasuan.
- ✓ Toki iluna, zurruna eta itxia da. Bertan dauden pertsonak mesfidantzaz jokatzeko dute.

KARTZELA ETA EUSKARA

Euskara beti izan da bilgunerako, maitasunerako, errespeturako eta identitaterako eremua.

- ✓ Debeku egoera “natural” baten ostean hasi ginen kartzeletan sartzen, gutunak, idazlanak, liburuak, azterketak prestatzeko zailtasunez betetako esperientziatik abiatuta. Kasu askotan euskaraz aritzea ere debekatua zuten.
- ✓ Kartzelara heldu ginenean, preso askok mesfidati hartu gintuzten, eta gu ere horrela joan ginen, ikusioz beteta, baina aurkituko genuenarekin ikaratuta.
- ✓ Denbora gutxi behar izan genuen, ordea, mesfidantza hori irauli eta kartzeletan, presoek, poztasunez eta ilusioz hartzeko.
- ✓ Gainera, irakasleekiko harremana harreman horizontala izan da, berdinetik berdinerara, eta guztiz errespetuzkoa eta parte-hartzailea da jardueran aritu diren pertsona guztientzat, eta horrek, hain testuinguru hierarkizatuan, lotura garrantzitsua sortzen du.

“EUSKARA DA GURE TERRITORIO LIBRE BAKARRA”

Joseba Sarrionandia

Preso gehienak pragmatikoak dira:

- ✓ Gehienek gizartean integratzeko premia dute, estigma egoeratik atera eta leku duina eskuratu nahi dute.
- ✓ Euskarak hori eman diezaieke, eta, hori ikusten badute, hizkuntza horren alde egingo dute.
- ✓ Preso gehienen errealitatea aztertuta, kartzeletan euskara irakasteko sistema aldatu eta goitik behera moldatu beharra dago, hau da, ahozkotasuna jorratu, komunikatzeko gaitasuna landu.
- ✓ Gizarte-bazterketa, marjinazio, segregazio edota eskusio egoeran dauden pertsona horiei, euskararen bitartez gizartean integratzea errazago izango dutela adierazi behar zaie.
- ✓ Integratzeko balio du euskarak. Sentsibilizazio lana egin behar da, eta euskarak zer ekarpen egin liezaiekeen ondo azaldu.
- ✓ Euskararekin hainbat ate zabalik aurkituko dituztela ikusarazi behar zaie, euskararik gabe horren erraz zabalduko ez zaizkienak, laneratzea esaterako. Horretarako, sentsibleak gara euskaldunok. Norbaitek euskararen alde ahalegin berezia egiten duela ikusten dugunean, ateak eta bihotza zabaltzen dizkiogu. Ziurrenik, gu geu ere, euskaldun garen heinean, diskriminatuak sentitzen garelako geure herrian.
- ✓ Ezinbestekoa da kartzela den errealitate paralelo horretara ere euskara sartu ahal izatea, kartzela arrakalatzea eta euskara orain arte debekatuta egon den eremu hori konkistatzea.